

Fidel Castro

Euskaldunon Egunkaria, 1997-09-07: 3.

Fidelek, estreinako altxamendu zapuztuaren ondoren bere defentsan egitarau politikoa irakurri zuen esanez: "Historiak absolbatuko nau". Libratu bezain laster berriz altxa zen askatasuna bila, orain Ekialdeko probintzian lehortaratua (1956); nekazariak eta apezteria berekin zituela geratu zen Sierra Maestran, hartu Santiago (1958), bota Batista, sartzen da Habanan (1959) eta Venezuelara egin zuen bidaia triunfal hartan Maiquetia-ko aireportua leporaino betean geunden ikurrina eta guzti *Centro Vasco*-ko ordezkariak. Historia Fidelekin zetorren. Hala edo jarraitu zuen gero Latinoamerikan (Afrikan ere), USA-URSS krisia gogorra tarteko. Che Guevararen galera historikoa traban. Galtzen du ere, odola bezala, herria Floridan; galduta zeuden Che-ren hezurak aurkitzen dira eta gaurko Habanan aipatzen du Fidelek egun honetan (1997ko iraila), krisia bizian ("hiru aste baino gehiagoko isilunea" luzearen ondoren "lasai zirudien, nahiz eta apur bat meheago egon", neurritzen dute kazetariak) jarraitzen duela historiak oraindik. Baina lehen ez bezala, hitzaldiak "hiru ordu laurden eskas" iraun du, euria hasi baita eta "estalpe batera joatea hobe dela", dio aitonak, "katarroa edo gripea harrapatu nahi ez baduzue"... Baina historia ez da amaitu, jaioko dira berriak hemen ere, espero du Fidelek, eta Aita Sainduaren zain ere badago, berak Erromara egindako bisitaren ordain!... Zorionak hau bakean eta itxaropenean posible egitea lortu dutenentzat. Bakea duintasunean, eta ez bonbarik orain!